


Euskal AEko eraikuntzaren kostuak % 0,6 murriztu dira 2024ko uztailan

Urte artean, 2024ko uztaila eta 2023ko uztaila alderatuta, prezioen hazkundera % 3,6koa izan da

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea % 0,6 jaitsi da 2024ko uztailan aurreko hilaren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. 2023ko hil beraren aldean, kostuak % 3,6 handitu dira.

Eraikuntzako kostuak % 0,4 murriztu dira eta Obra zibilekoak % 1,2. 2023ko uztailaren aldean, berriz, prezioak % 3,3 igo dira Eraikuntzan eta % 4,5 Obra Zibilean.

Euskal AEko Eraikuntzaren kostuen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasak sektoreka



Iturria: Eustat. Eraikuntzaren kostuen indizea

Aurreko hilaren —2024ko ekaina— aldean, **lehengaien** kostuak % 0,7 jaitsi dira, eta **eskulanaren** kostuak, berriz, ez dira aldatu. Urte arteko terminoetan, lehengaien kostua % 3,0 igo da eta eskulanarena % 5,4.

Lehengaien kostua hil artean % 0,5 jaitsi da Eraikuntzaren sektorean, eta % 1,5 Obra zibilarenean. Urte arteko bilakaeran, Eraikuntzako lehengaien kostuak % 2,7 igo dira eta Obra Zibilekoarenak % 4,2.

Euskal AEko eraikuntzaren kostuen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Uztaila 2024

	Indizea	Aldakuntza (%)	
		m/m-1	m/m-12
Guztira	129,5	-0,6	3,6
Eraikinak	128,9	-0,4	3,3
Obra zibila	132,0	-1,2	4,5
Lehengaiak	130,7	-0,7	3,0
Eraikinak	130,0	-0,5	2,7
Obra zibila	133,9	-1,5	4,2
Laneskua	125,5	0,0	5,4

Oinarria 2015=100

m / m-1 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

(p)Behinbehineko datuak

Data 2024ko Abuztuaren 23a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Eraikuntzaren sektoreak kontsumituriko lehengaien prezioetan honako azpisektore hauetan izan ziren igoera handienak 2024ko uztailan, 2023ko uztailaren aldean: *Mineral ez-metalikoak* (% 10,7), *Altzarigintza* (% 4,0) eta *Material elektrikoa* (% 2,9). Aldiz, hauek izan dira sektoreko lehengaiak diren produktuak —horien prezioek behera egin dute gehien— ekoizten dituzten azpisektore nagusiak: *Energia elektrikoa eta gasa* —% 31,6ko murrizketarekin—, *Mineral ez-metalikoen industria* —% 6,3ko murrizketarekin— eta *Petrolio-fintzea* —% 1,6ko murrizketarekin—.

Euskal AEn kontsumitutako lehengaien prezioak, sektorearen arabera (A64). Urte arteko aldakuntza-tasa (p). Uztaila 2024

	m / m-12
Ezmetalezko meak	10,7
Zuraren eta kortxoaren industria	1,5
Petrolioaren fintzea	-1,6
Industria kimikoa	-1,0
Kautxua eta plastikoa	1,1
Produktu mineral ez-metalezkoak	-6,3
Metalgintza	-1,5
Metalezko artikulak	1,9
Material elektronikoa	2,5
Material elektrikoa	2,9
Makineriaren fabrikazioa	0,8
Altzarigintza	4,0
Energia elektrikoa eta gasa	-31,6

Oinarria 2015=100

(p) Behinbehineko datuak

m/m12 Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2024ko Abuztuaren 23a

Iturria: Eustat. Eraikuntzaren Kostuen Indizea

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62